

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Eskolara joaten hasi dira gaur Nafarroara bakarririk iritsi diren adingabeak

Hezkuntzako eta Eskubide Sozialetako departamentuek baterako harrera-prozedura diseinatu dute bakarririk dauden adingabeen hezkuntzari eta gizarteratzeari lehentasuna emateko

Osteguna, 2019.eko urtarrilak 10

Hamasei urte eta hamazazpi urte eta erdi bitarteko adina dute, gehienak marokoarrak dira jatorriz (baten bat Ghanakoa edo Eritreakoa den arren) eta, den-denak, 24ak, mutilak dira. Nafarroara bakarririk iritsi dira, ezein helduren laguntzarik gabe, eta ez dituzte ezagutzen bertako hizkuntzak. Kolektibo hau behar bezala artatu ahal izateko, Hezkuntza eta Eskubide Sozialetako departamentuek baterako jardunbidea diseinatu dute. Proposamen honen bitartez, hainbat gaitasunen inguruko formakuntza bermatu nahi diete, bazterkeria eta pobrezia egoerei aurre egiteko eta atzerriko adingabe hauei egungo gizarteratzea eta geroko laneratzea errazteko.

Gaur, urtarrilak 10, lehen hiru ildoetako eskolak hasi dira: sukaldaritza, instalazio elektrikoak eta ibilgailuen mantentze-lanak. Biltegiko laguntzaileen formakuntzarako programa bat ere abiatuko da.

Bestetik, etengabeko koordinazioan, Eskubide Sozialetako Departamentuak bere gain hartu du adingabe hauen arreta integrala, administrazio-tutoretzaren bitartez eta egun indarrean dauden babes-baliabideetan horien zaintza gauzatzuz. Kasuren batean, familia-harrera izan da erabilitako baliabidea, baina kasu gehienetan, adingabeen zaintza egoitza-harreraren bitartez egin da, Foru Komunitateko babes zentroetan.

2018ko irailean, 15 plaza zituen berariazko programa abiarazi zen bakarririk dauden adingabe atzerritarrek artatzeko. Aurten, arreta hori beste 25 adingaberentzako beste programa batez osatzea aurreikusi da: 5 adingabe lehen harreraren, eta 20, etengabeko harreraren. Alderdi instrumentalei buruzko arretaz gain, arreta psikologikoa eta gizarte eta hezkuntza arlokoa ere eskaintzen da.

Hezkuntza Departamentua adingabeen formakuntzaz arduratu da, eta horretarako, formakuntza soziolinguistikoa eta profesionala uztartzen dituen programa diseinatu du Eskubide Sozialetako Departamentuarekin batera.

Bakarririk dauden adingabeak Gizartean eta Hezkuntzan Txertatzeko Programa

Gizartean, Hezkuntzan eta Lan Munduan Txertatzeko Programa (PISEP), gure Komunitatera iritsi eta bakarririk dauden adingabe atzerritarren beharrezko gizarteratze eta laneratzeari erantzuteko,

Eskubide Sozioletako Departamentuak Hezkuntza Departamentuari egindako eskaeraren emaitza da. Hartara, adingabeei gizartean eta lan-munduan txertatzen lagunduko dieten gaitasunak eskaintzea da programa honen helburu nagusia.

Hauexek dira hezkuntza-eskaintza honi atxikitako kualifikazioak: Lorezaintza Nekazaritza-Basozaintzako Ilan, Sukaldaritza Burlata Ilan, Fabrikazioa eta muntaketa Virgen del Camino IIPan, Biltegiko eragiketak Maria Ana Sanz Ilan eta Ibilgailuen elektromekanika Uhartea BHIan. Ikasle hauek 8nako taldeetan antolatuko dira.

Ikastetxe guztietan, zuzendariak eta irakasleak argi dute zeintzuk diren kolektibo honen formakuntzari dagozkion lehentasunak:

- Desdoikuntzak gutxitu eta hezkuntza-testuinguru arautuago batera egokitzea edo laneratzea ahalbidetuko duen hezkuntza-formakuntza.

- Gaztelaniari buruzko formakuntza, hizkuntza menperatzea giltzarrizkoa baita gizartean nahiz kulturaren sartzeko.

- Lehen mailako kualifikazio profesionala.

- Gizarteko zein autonomia pertsonaleko trebetasunei buruzko gaikuntza espezifikoak.

- Lan orientazio espezifiko eta egokitua, adingabeei erabakiak hartzen laguntzeko.

- Harrerako kulturaren ezagutza, eskolaz kanpoko jardueren programazio selektibo baten bitartez.

- Erreferentziazko gertuko familia-ingurunerik gabe egindako migrazio prozesuari atxikitako zailtasunen zaintza espezifikoak, ikastetxeko orientazio-taldeko profesionalen bitartez.

Adingabe hauek ikastetxeetan sartzeko, Hezkuntza Departamentuak kontratazioari dagozkion beharrak estali ditu, irakasleak kontratatuzko zerrendaren prozedurari jarraiki.